

## DEKRETUA

Aretxabaletako Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

### EBATZI DUT

**Lehena.**- Udal honen 2017ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

#### DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2017-12-31n:		1.985.921,37
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		1.737.794,06
Aurrekontuko zordunak :	1.701.960,38	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	35.833,68	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2017-12-31n:		1.073.068,82
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	761.602,85	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	311.465,97	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		2.650.646,61
5.- Saldo kobragaitzak:		632.600,08
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		353.413,56
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		1.664.632,97

#### AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	588.589,60
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	15.432,76
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	245.307,44
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	211.240,21
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	1.060.570,01

## KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	403.966,84
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	667.094,98
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	1.071.061,82

**Bigarrena**.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena**.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Aretxabaleta, 2018ko martxoaren 7a

Lehendakaria,